

# MENDI-MENDIYAN

---

JOSE MARIA USANDIZAGA JAUNARI:

*Urkabetikan Arreskularre  
bitarteko sugaztiyak,  
eta andikan aurrera ere  
arki diran sagaztiyak,  
irudi dute Nafarruako  
lurretan dauden naztiyak,  
alozi (1) goitsuz apaindutako  
leku naigarri maztiyak,  
jaiñ dira aberazkiyak!.....  
adarrik adar chiruliruku  
pozak dabiltz egaztiyak.*

*Lur gozatuau bear dan diña  
ereiten dan aziyak,  
zenbat alorta (2) eman lezaken  
eziñ asmatu astiyak;  
baña aloziz apaingoiturik  
otskari (3) ederki jantziyak  
entzule denak arrituriakan  
utzi litzazke autziyak,  
jChinist gentzake guztiyak!.....  
baztarrak ondo ospetu ditu  
Joñe Mari-ren ausiyak.*

(1) Harmonía.—(2) Fruto.—(3) Música.

*Beti badira argidotartzen  
diran gizonak erriyan,  
eta gaur poz bat sartu zait zorrotz  
nere biyotzen erdiyan;  
Usandizagan otseztizketak (1)  
sortzen du biyotz eriyan,  
alaitasun bat zoragarriya,  
dizdirasuna begiyan,  
¡Ai, jaunak! etzi, etziyan  
zorionduko nuke pozikan  
bageunde Mendi-Mendiyan.*

JUAN INAZIO URANGA

(1) Ópera.

